

# [b]

**BARREN**

ELGOIBARKO ASTEKARIA

614. zkia.  
XV. urtea  
2007ko maiatzaren 18a



Haizea Emakume Taldea

# 10 urte

# emakumearen alde



Elgoibarren,



egin behar dugu

Alfredo Etxeberria Murua  
Elgoibarko Alkatetzarako  
hautagaia

Mendaron,



egin behar dugu

Irene Berasaluze Lazkano  
Mendaroko Alkatetzarako  
hautagaia



[www.eginbehardugu.com](http://www.eginbehardugu.com)



Kotxe guztiak berdinak ez direlako.  
Poltsiko guztiak berdinak ez direlako.  
Behar guztiak berdinak ez direlako.



Auto guztientzako konponbideak ematen ditugu:

- Marka guztiak.
- Independientea.
- Kontsulta itzazu pneumatikoetan ditugun eskaintzak.



*25 urte baino gehiago automozioan.*



**AXIER, S.L.**

Garagarza, 1 - MENDARO  
Tel.:943 75 71 60 - Fax.:943 75 50 72  
e-posta: [axiersl@axiersl.com](mailto:axiersl@axiersl.com)





ALAITZ VIVES

“Esaidan, zoriontsuak al zarete mugaz bestaldeko biztanleak?”

Zerk egiten zaitu zu zorioneko Alain? badirudi guztioi zorion eza zerk ekartzen digun esatea errazagoa dela: gaisotasunak, desgraziaren bat gertatzea norberari edo inguruko bati... baina zerk egiten gaitu zorioneko Alain? Ez da erantzuten erraza, ezta? Horrela gertatzen zait niri behintzat. Aurrez pentsa genezake arrazoi horiek erabat desberdinak izango direla gutako bakoitzari galdetuta, bakoitzak bere bideak, bere arazoitoxoak biltzen dituela zoriona eskuratzeke. Hainbeste urtetan baztertuta utzi ostean, azken hamarkadetan ikergai hartu dute zientzilariek zoriona.

Hala ere, gutartean zorionsu zarela esateak badu holako prentsa txar moduko bat. Badirudi azaleko pertsonaz ari garela, hobe esateko bizitza azalkeiaz bizi duenaz ari garela. Bizitza hori baino serioagoa da, aizu! Hobe ikusia dago bizitza era reflexibo, kezka-ti batez, ikusten duena, inteligentego, ardu-ratsuagoa dirudi horrek...

Diruak zorionik ez digula emango ikasia dut aspaldi. Gure amamak halaxe irakatsi zidan berak bizitakoa adibide jarritz. Errezuetan Jainkoari dirua eskatzen omen zion, lasai antxean bizitzeko ilusioarekin eta halako batean Jainkoak eman ei zion dirua, ikusi zezan behin bada ere hori zer zan, eta hara! nola gertatzen diren gauzak... desgraziak baino ez zizkion ekarri. Orduetik, Jainkoari osasuna eskatzen zion eta dirua, komeni bada. Amen.

## ZOZOAK BELEARI...



ALAIN MANTEROLA

«Zerk egiten zaitu zu zorioneko, Alain?»

ALAITZ

«Lesakako San Ferminak, Xilbeiraren bertso on bat...»

ALAIN

Lagunarteko afaria eta bertako ardaia; udako gauetako poteo luzeetan bertsotan zirika jardutea; baso bat ur Erlora bidean artzainen iturrian; gaztetxeko kontzertu inprobisatua taburetean bakarrik eseri eta desertuan bakar-bakarrik peioatea probatu eta presentzia bat sumatu zuen norbait ezagutzea; Lesakako San Ferminak; Xilbeiraren bertso on bat; udaberriko lehenengo bainua Kantauri itsasoan; muxu bat jasotzea tripan; motxailea ijito asto-ile moztaillea dela dakien PVCzko dijeridu-jole bat existitzea oharkabean; nire lagun baserritarren oiloen arrautza pjiitua jatea; marrazki bat topatzea automobileko ate izkinan “Kaixo Alain!” jartzen duena; estazioko ume handi horrekin solas eta jolas egitea; amorruek hartuta ostikoz atea apurtzearen ondorengo zerua ikustea; Euskal Herritik urrun preso ez dagoen lagun bat bisitatzea; Mendaron pintada bat ikustea; Espainiako hautes-legeetatik kanporatuta bizitza; gazte asanbladakoak Mendaroko Buelta preparatzeko Amoko sasiak ebaten ibili zirela jakitea; muxu bat ematea lepoman; trumoi lainoen forma koskaduna atzematzea.

Eta ilunabarrean lehengusu txikiekin kontu kontari aritzea haritzpeko eserlekuan, aitonaren ingude-ohol zahararekin egindako eserleku hartan.

Hauexek nire zorion apurrak, zoriontasunaren militante ez izateko arrazoi goxoak.



ZORIONAREN BILLA JUN BIAR DA, ZORITXARRA DEITXU BARIK ETORTEN DA



Esaera zaharra

## Jauntxoak eta aingeruak Mendaron

Karta hau min eta amorru handiz idazten dut. Izan ere, hurrengo lau urteetan ere, udaletxetik kanpo utzi nahi gaituzte. Hauek ez dira hauteskunde demokratikoak.

Mendaroko kasua ere larria da oso. MTIko "apolitikoek" agur esan diote Mendarori, eta dagoen aukera oso zabal da: EAJ, EA, PSE-EE eta PP. Ja, ja!

Duela aste batzuk MTIkoak "Eutsi goixari" hitzekin zuzendu ziren guregana BARREneko karta batean. Gu hemen gaude prest beste lau eta mila urtetan lan egiteko. Eta zuek? Lau urtetan boterean egon, poltsikorako diru estra zurrupatu edo norberaren etxea atondu duzue zuen gustura. Hortik aparte. Batzuen aberastasuna, gazteon miseria. Barregaria edo tamalgarria?

Bestetan gure karten egile polemikoa bilatzen ibili zarete txakurren pare. Oraingoan lasai, emango dut izena-eta!

Ibai Idoeta Txurruka naiz. Niretzako U5016489M eta zuentzako 15385376D. Zuen auzokidea naiz, zoritxarrez. Batzuk lehengusu, beste batzuk koinatu ere bai...

Gora Euskadi Askatuta!

**IBAI IDOETA TXURRUKA**

### OHARRA

Joan zen astean banaketarekin arazoak izan genituen eta ondorioz, herriko zenbait zonaldeetan ez ziren BARREna eta gida komertziala banatu. Lehen bailehen zuen etxeetan izango duzue gida komertziala. Nahi duenak BARRENen jaso dezake aurtengo gida. Barkatu endredoak.

E-POSTA

**barren@elgoibarkoizarra.com**



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak, NAN** eta **telefono zkia**.



**barren**

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR  
☎ 943 74 41 12 • Faxe: ☎ 943 74 37 04  
E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)  
Publizitatea: ☎ 943 74 37 04 • E-posta: [barrenpubli@elgoibarkoizarra.com](mailto:barrenpubli@elgoibarkoizarra.com)

Argitaratzailea:



**ZUZENDARIA** Enrique Bert **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Esther Gurrutxaga **PUBLIZITATEA** Eider Iriondo **MAKETATZAILEA** Jaione Unanue **KOLABORATZAILEAK** Antton Alberdi, Uxue Alberdi, Oihana Apellaniz, Eguzkiñe Aranberri, Jon Eugi, Ion Garate, Aitzol Gamendia, Juanito Gorostiza, Amaia Gorratxategi, Sare Gurrutxaga, Imanol Larrañaga, Ainhoa Lendinez, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Ane Odria, Maialen Olazabal, Jasone Osoro, Iñigo Otaño, Alain Ulazia, Maite Uriarte, Unai Villena, Alaitz Vives **INPRIMATEGIA** Geru **TIRADA** 4.630 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1038/92 **ISSN** 1139-1855



## KEXAK

• **Plaza Txikiko OTako makinak ingelesez ematen ditu txartelak:** "Harrituta nago. Plaza Txikira joan nintzen autoa aparkatzera eta OTako txartela jarri nion autoari. Txartela ingelesez zegoen. Ez al zegoen txartelak euskaraz ematen dituen makinarik? Txartela ulertzeko ez da ingelesez asko jakin behar, baina garrantzitsua dela uste dut honelako gauzekin kontuz ibiltzea. Euskara bultzatu behar dugu eta detaile guztiak hartu behar ditugu kontuan. Mila esker".

• **Basarte eta Erretxindi artean dagoen zelaiko belarra oso luze dago:** "Udaberrian gaude, zelaiak berde-berde eta ederrak daude, baina zaindu egin behar dira. Garai honetan belarra izugarri hazten da eta sarritan moztu behar izaten da, txukun mantendu nahi badugu behintzat. Basarte eta Erretxindi arteko zelaiko belarra moztu egin behar da."



• **Urasandiko patinatzeoko parkearen ondoan bizi gara eta askotan ezin izaten dugu loak hartu:** "Gazte asko ibiltzen da Urasandi auzoko patinatzeoko parkean. Gu ez gaude horren kontra, baina askotan gabez ibiltzen dira, asteburuetan batez ere. Joan zen astean, goizeko 2:00ak aldera loak hartu ezinda geunden. Zarata izugarria ateratzen dute eta parke inguruan bizi garenek jasan behar izaten dugu. Ez dakit zein izan daitekeen irtenbidea, baina ordutegi bat finkatzea ondo legoke".



• **Merkatu Plazako dendariak zabor guztia botata lagatzen dute eguenetan:** Joan zen astean atera genuen argazki hau. Emakume bat zaborra botatzera joan zen eta honela aurkitu zuen zabor-lekua, eta berak esan zigunez, ez zen lehenengo aldia. Gainera, zabor-kontenedore batean haragi mordoak zegoen. Emakume honek pena handia hartu zuen, izan ere, jende asko gosez hiltzen baita munduan, eta hemen haragia zaborretara botatzen dugu. Kontu gehiagorekin ibiltzeko eskatu nahi die Merkatu Plazako saltzaileei.



## TXALOAK

• **Txalo bero bat Haizea Emakume Taldeari:** "10 urte bete dituzue. Zorionak. Emakumearen alde lan handia egin duzue eta txalo bero bat merezi duzue. Zarata handirik atera gabe, egunetik egunera gauza txikiak egiten ari zarete. Eskerrak eman nahi dizkizuegu, batez ere, antolatzen dituzuen ikastaro, irteera, hitzaldi eta beste hainbat gauzengatik. Oso gustura hartzen dugu parte honelakoetan. Segi horrela, beste 10 urtean gutxienez".

Atal honetarako kexak, txaloak edo galderak helarazteko:

**E-posta:** [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)  
Nafarroa enparantza, 2  
20870 ELGOIBAR  
☎ 943 74 41 12



Elgoibarko  
Udala



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



*ELGOIBAR ETORKIZUNARI BEGIRA*  
**mahaingurua**




Unai  
Zulaika  
**EB-Aralar**


**Maiatzak 22,**  
**asteartea**

**19:30**

**Musika Eskolan**



Alfredo  
Etxeberria  
**EAJ**



Jon Peli  
Urigen  
**EA**



Ovidio  
Campello  
**PSE-EE**



Iñaki  
Odriozola  
**ANV**



Javier  
Nuñez  
**PP**

## [AKORDATZEN NAIZ]



## ITZIAR AJURIA

1924an jaioa

## «Ordenadoria»

**O**rdenadorian pasatzen dot denpora asko. Danetik dago. Notiziak irakurtzen diitut, elgoibarren.net oso ederra dator, oso gustora irakurtzen diitut albistiak han. Periodikuen orrixetan ere sartzten naiz (Deia, Diario Vasco ...), eta jokuak ere badaukadaz, eta hor ibiltzen naiz solitarixuak egitten. Artixuak bialdu eta jaso ere egitten dot: KZgunian ikasi genduan dana. Pare bat urte egin nittuan ikasten, eta 80 urte bete nittuan, ordenadoria ekarri naban etxera. Harek engantxau nau. Nere amak ezagutu baleu ordenadoria...

Eskuko telefonua, en kanbio, ez daukat: etxata gustatzen, eta gaiñera ez dot bihar. Lehen danok moldatzen giñan hori gabe, eta oiñ eziñ; ohitzen zara, eta gero hari lotuta bizi bihar. Batzue-



tan ondo etortzen da, nik iaz konprobau naban.

Ikastolako kontuen asuntuakin nabillen, ia urte haretan egindako lana kotizuata bezela kontauko ote zeben edo ez. Jubilau nitzanian 12 urte bakarrik naukazen kotizauta, 25 lan egiñ arren. Ematen dau ontzat hartuta dauala, baiña Aste Santua zan eta guk papeleo dana hillan 14rako entregau bihar genduan. Illobakin normalian Aste Santuan urtero juaten naiz oporetara eta iaz ere Canariasera juteko reserbia einda geunkan. Illobak eruan zaban mobilla eta nik abixua laga naban, papeleo horrek egittera etorri bihar nitzan edo ez. Azkenian atzeratu egin zeben Aste Santuan maixu eta maistrak oporretan egoten diralako. Hantxe jaso naban abisua, eta holakuetarako ondo dago mobilla.

## [GURE BERBAK]

## Fonologia (9)

BOKAL ARTEKO KONTSONANTIEN LEUNTZIA  
ETA ERORTZIA

Bokal artian, kontsonante asko leundu edo desagertu ere egitten dira ahoskatzerakuan; normalian, kontsonante leherkari ahostuneri gertatzen jakue hori (B, D eta G-ri), baiña, ikusiko dogun bezela, ez hóreri bakarrik. Bokal arteko B eta G-ren kasuetan, ixa automatikoki gertatzen da erorketa hori. Baitta R-ren kasuan, baiña hori hurrengo astian ikusiko dogu. Gaur, leherkari ahostunak:

## • D ⇒ Ø / V\_V

(\*nola irakurri formula hau: D desagertu egitten da bokal artian dixenian)

Adibidiak: *amista(d)ia, e(d)o, emango (d)ixat, jan da e(d)an, be(d)arra, e(d)arki, esaiak (esan egidak), ezagutuko (d)ozu, esan zi(d)an ...*

## • G ⇒ Ø / V\_V

Adibidiak: *amista(d)ia, e(d)o, emango (d)ixat, jan da e(d)an, be(d)arra, e(d)arki, esaiak (esan egidak), ezagutuko (d)ozu, esan zi(d)an ...*

## • B ⇒ Ø / V\_V

Ez da D eta G bezain sarrixa bokal arteko B kontsonantia desagertzia, baiña gertatzen da hizketaldi batzuetan (azkar ari geranian, lagunarteko hizkeran...):

Adibidiak: *jardun ze(b)en; makiña (b)at urte; ho(b)e biharrez; hartu na(b)an ...*

Jesus Mari Makazaga

Elgoibarko Izarra Kultur Elkartean 4 HILABETEKO AMATASUN BAJA betetzeko

## EUSKARA TEKNIKARIA BEHAR DA

Merkataritzaren normalizazioaren arloan egun osoko jardunean lan egiteko.

Curriculumak jasotzeko azken eguna: maiatzak 25.

ELGOIBARKO IZARRA Kultur Elkartea • Ubitarte 4, behea 20870 ELGOIBAR  
Informazio gehiago: Tel.: 943 74 17 46 (Amaia) • E-posta: [gureanbai@elgoibarkoizarra.com](mailto:gureanbai@elgoibarkoizarra.com)

HAIZEA EMAKUME TALDEAK 10 URTE BETE DITU

## SEXU BERDINTASUNA LORTZEKO BIDEA LUZEA DA ORAINDIK

*Haizea Emakume taldeak aurten 10 urte bete ditu. Hori dela eta, gaurkoan elkarte honetako partaide beteranoetako laurekin izan gara berriketan. Honatx beraien izen abizenak: Gloria Santiago, Antonia de la Fuente, Maria Jesus Lazkano eta Miren Pagoaga. Egun 100 bazkide inguru dira. Hitz urritan, Haizea Emakume taldearen ibilbideaz, orainaz eta geroaz hitz egin dugu.*

**G**urasoen Eskola osatzen zuten kideek, 1997. urtean, Elgoibarren emakumez osaturiko elkarte bat sortzeko beharra aurreikusi zuten, emakumeen eskubideen alde lan egin eta garaian garaiko arazoei aurre egiteko xedeak bultzaturik. Honela, udaletxeko kultura eta ongizate sailetatik igorritako laguntza eta animoen bitartez, Elgoibarren Haizea Emakume Taldea izeneko elkarteja jaio zen. Garai hartan, 16-17 emakume inguruk ekin zioten militantzia hari. Modu honetan, Haizea taldekoek alde aurretik, gure herriko emakumeek, emakumeen mugimenduaren alde buruturiko lanari jarraipena eman zioten. Izan ere, 1976. urteaz geroztik, Frankismoaren amaieran, eta emakumeen eskutik gure herrian makina bat ekimenek argia

ikusi zuten. Horren erakusgarri, 1976. urtean Elgoibarren etxeko andrez eraturiko elkarte bat sortu zen eta 1985. urte bitartera arte, hainbat eskubideren alde lan egin zuten: emakumeen duintasuna, antisorgailuak, abortuaren legalizazioa, familientzako plangintza guneak, emakumearen burujabetasun ekonomikoa, berdintasuna...

### FINKATURIKO HELBURUAK ETA LORPENAK

Gloria Santiagoren hitzetan: "Hasieratik Haizean finkatu genituen helburuak emakumearen autoestimua indartzera zuzendu ziren".

Ideia honetan, lau solaskideak erabat ados daude: "autestimua lortzea, azken finean, berdintasuna lortzea bideratua dago".

Horrela, 10 urte hauetan antolatutuzten ekimen guztiak norantza horretan zuzendu dituztela jakinarazi digute. Hala nola, osasun alorreko konferentzia zein hitzaldi garrantzitsuak, kultur zein menditerak, erakusketak, ikastaroak, eta antzerki nahiz zine emanaldiak. Honen harira, adierazi, Haizea Taldeak Ongarri zine klubarekin elkarlanean, hilean behin film bat antolatzen duela. Zine emanaldi hauetako mamia, emakumezko generoaren arazoak eta kezkek izaten dira eta Gloriak azaldu digunez, geroz eta ikusle gehiago joaten dira emanaldietara. Modu berean, jendearengandik oso erantzun ona duen beste ekitaldietako bat, Eskame Larinagak astean behin eskaintzen duen, "ahalduntzearen" gaineko ikastaroa dugu. Maria Jesusen hitzetan: "ikastaro honek, zeure burua







1996 urtean Haizea Emakume Taldea sortu zuten Guraso Eskolako 22 emakumek.

hobeto ezagutzen lagutzen dizu. Orohar, emakumeari botere sentimendua garatzen lagutzen dio, modu honetan, bere eskubideak defenditzeko gai izan dadin, gizarte-ko esparru guztietan". Horrez gain, Haizea Emakume Taldekoek, aldarrikapen ugari burutu dituzte Gazte Asanbladarekin eta Biluzik Sexologia Zerbitzuarekin elkarlanean, jomuga berarekin: emakumeen eskubideak babestu eta aldarrikatu.

«Auto estimuaren lorpena, berdintasuna bideratzera zuzendua dago»

#### AURRERAPAUZO NABARMENIK EMAN AL DA BERDINTASUNAREN BORROKAN?

Gai honen gainean, iritzi desberdinak dituzte. Maria Jesusek, honakoa dio: "zenbait alorretan bai. Esaterako, egun unibertsitatean ikasten diharduten emakumeen heziketa maila oso ona da. Baina, gero, lan munduan barneratzeko garaian eta benetan balio dutena erakusteko ordua iristen

zaienean, zailtasun ugariarekin topo egiten dute". Antoniak beriz, honakoa dio: "gure adineko emakumeei, zenbait alorretan, 10 zmtako aurrerapausoak eman direla iruditzen zaigun bitartean, oraingo belaunaldi gazteentzako aurrerapauso horiek soilik, 3 zmtakoak izan dira". Bada, baikorra denik ere; Gloriaren ahota: "ez dugu ahaztu behar gure adineko jendeak jaso dugun heziketa matxista izan dela. Dena den, ni baikorra naiz. Egun, gizonetako etxeko eginkizunetan, esaterako, gehiago parte hartzen dutela iruditzen zait".

Hala ere, bi sexuen areko berdintasuna lortzeko, bide luzea dago egiteko oraindik. Lan munduan, adibidez, gizonetako emakumearen goitik egoten jarraitzen du, soldata eta bestelako lan baldintzei dagokionez. Hau gutxi balitz, Mirenen hitzetan: "bi aldiz pentsatu behar duzu, ama izan baino lehen, osterantzean, asko arriskatzen baikara".

Gai honi buruz, Gloriak, diruz lagundutako haurtzandegietako eta jangeletako zerbitzuak hobetu eta areagotu beharko lirakeela uste du. Ildo honetatik jarraituz, Maria Jesusek, duela gutxi artikulatu batean irakurri zuen datu bat ekarri du gogora: "geroz eta emakume gehiago ari omen dira, ostera ere, etxeko lanak egin eta euren seme alabetaz arduratzera itzultzen. Izan ere, emakume asko lantokian ez dira ongi sentitzen. Etxeko eta etxez kanpoko lanare-


kin gainezka eginda aurkitzen dira". Zentzu honetan eta Maria Jesusen iritziz: "etxeko andarearen lana ez dago aintzat hartua, tristea bada ere, lanaren balioa soldatan neurtzen baita". Tratu txarren inguruan ere, gure herriko zenbait kasuren berri izan dutela esan digute, nahiz eta datu ofizialik ez eduki eskura, honakoa, giltzapean egoten segitzen duen gaia baita.

«Emakume asko etxeko eta etxez kanpoko lanarekin gainezka daude»

#### BALORAZIOA

Haizea Emakume Taldeak 10 urte hauen inguruan egiten duen balorazioa ona da. Sentipen oso onak utzi dizkieten pila bat ekintza burutu dituzte. Gisa berean, eskerrak eman nahi dizkiete, beren lana babestu eta jarraitu duten herritarrei. Bukatzeko, jende gaztea animatu nahi dute Haizeako partaide izatera, erreleboa har dezaten. Haizeak irekiak baititu jende, ideia eta ekarpen berri ororentzako ateak.

## [ PROTAGONISTA ]



### Jose Gurrutxaga

Jose Gurrutxaga 85 urteko korrikalari elgoibartarrak 100 eta 200 metroko probak irabazi ditu Gipuzkoako eta Euskadiko Atletismo Txapelketetan, hurrenez hurren, beterranoen mailan. Txapelketa Donostia-ko Anoeta estadioan jokatu zen. 100 metroko proban 19.61 segundukoa izan zen Jose Gurrutxagaren denbora eta 200 metroko proban, berriz, 43.70 segundukoa. Atleta elgoibartarraren hurrengo erronka, Espainiako Atletismo Txapelketa izango da. Proba hau Murtzian jokatu da, datorren ekainaren 22tik 24ra. Jose Gurrutxaga astean bi aldiz entrenatzen du Mintxetako pistan.

## [ NOTIZIA ]

### Ikastetxe publikoetako irakasleen %51k egin zuten greba Elgoibarren

**H**ezkuntzako gehiengo sindikalak deituta, greba eguna da zen martitzenean Gipuzkoako ikastetxe publikoetan. BH Institutuan irakasleen %67ak egin zuten greba, 97 irakasletatik 65 egin zuten. Herri Eskolan berriz eragina txikiagoa izan zen. 34tik 2 irakaslek bakarrik egin zuten greba. Hilaren 18an irakaskuntzan ez dabil-tzan langileek egingo dute greba. Sindikatuen datuen arabera, %70eko eragina izan zuten grebak Gipuzkoan eta Jaurritzak esan zuenez, irakasleen %48ak egin zuten greba. Hilaren 24rako, Bizkaia, Araba eta Gipuzkoarako egin dute greba deialdia.

#### Aldarrikapen eta eskaerak

Unibertsitateetik kanpora, irakaskuntza publikoaren egoera ez dela ona aldarri-



katzeko egin zuten greba. Lan baldintza hobek, 55 urtetik gorako irakasleen klase orduak murriztea, eta ordezkapen beharri-zanei aurre egiteko neurriak bilatzea eskatzen dute, besteak beste.

## [ ZENBAKIA ]

# 118.171

Udalak 118.171 euro inbertituko ditu Madalako erotonda ingurunea berritzeko. Erortzeko zorian dauden eraikuntzak bota ,

lurra asfaltatu eta aparkaleku berriak sortuko dira. Horma berri bat ere eraikiko da, inguruko lantegiak apur bat estaltzeko.

## asteko [ ARGAZKIA ]



Joan zen barixkuan ezagutu genuen Espainiako Auzitegi Konstituzionalaren erabakia: ASBko zerrenda guztiak eta ANVren 133 zerrenda ilegalak ziren. Horien artean dago Elgoibarko zerrenda. Hala ere, zapatu eguerdian taldearen aurkezpena egiteko asmoa zeukaten Plaza Handian. Udalak ez zien laga ekitaldi politikoa egiten, beraz, "Hauteskunde demokratien alde" lemapean, kontzentrazioa egin zuten, beraien egoera salatzen asmoz. Ilegalak izan arren, maiatzaren 27ko hauteskundeetan egongo da Ezker Abertzalea.

## Miski Elkartek 25.000 euro lortu nahi ditu Peruko umeak eskolaratzeko



**E**lgoibarko Miski Elkartek kanpaina berri bat jarriko du martxan dirua biltzeko. Beraien nahia Peruko umeak eskolaratzen jarraitzea da. Kanpaina honen ardatz nagusia erifan salmenta izango da, baina beste ekintza batzuk ere egingo dituzte. Oraingo honetan 25.000 eurotan jarri dute euren helburua. Diru kopuru honekin, Peruko Cusco herriko umeak eskolaratzen jarraituko dute. Gemma Agirregomezkortak gidatzen duen talde honek, 500 ume eskolaratu ditu dagoeneko, eta datorren urterako 600 ume inguru izango dira. Kanpainan parte hartzeko

beste modu bat, apadrinazioak dira. Dagoeneko, Elgoibarko 30 familiak apadrinatu dute umeren bat. Informazioa 943 74 03 31 telefonoan.

### Mugak zabalitzen

Bi hilabete egin ditu Gemma Agirregomezkortak Peru aldean, eta oraingoan ere, lan handia egin dute. Miski Elkartearen lana Cusco herrialdean zentratzen da, batez ere, baina poliki-poliki euren mugak zabalitzen ari dira. 25.000 euroekin joan zen Gemma Perura, eta Lima edo Callao bezalako herrialdeei ere eskaini die laguntza.

## [ MOTZ-MOTZIAN ]

### Udako Euskal Unibertsitatea

Udako Euskal Unibertsitateak 27 ikastaro antolatu ditu aurtengo ikasturterako. Klase batzuk Baionan eskainiko dira eta besteak Eibarren. Elgoibarko Udalak ikastaroaren matrícula oso ordaintzeko dirulaguntzak emango ditu, beka gisa, langabetu eta ikasleentzat. Informazio gehiago 943744366 telefonoan. Ikastaroei buruzko informazioa [www.ueu.org](http://www.ueu.org) webgunean aurki daiteke.

### Merkatu Plazako zozketa

Hilabete honetan 60 euroko bi erosketa-txeke banatu dituzte Merkatu Plazako dendariak. Maite Janeiro eta Kontxi Gabilondo izan dira irabazleak. Saria Merkatu Plazako dendetan gastatu beharko dute.



### Bai ala Ez lehiaketa

Hilabete honetan Iker Tapia izan da BARREneko Bai ala Ez lehiaketako irabazlea. Gabi jatetxean bi lagunentzako afaria irabazi du. Zorionak! Datorren hilabetean, Zumaiaiko Zelai Talasoterapia hotelean bi lagunentzako zirkuitoa zozketatuko dugu.



## Kolore biziz margotu dute Herriko Antzokia



Herriko Antzokiaren eraikuntza margotzen ari dira egunotan. Kolore bizia aukeratu dute oraingoan. Honekin batera, neozko argiak jarriko dituzte fatxada nagusian, eta ibai aldera ematen duen horman ere, "Herriko Antzokia" irakur daiteke letra hori handietan. 1981ean erosi zuen Udalak Kapitól zinema eta 1994. urtean antzoki izatera pasa zen. Barrukaldea eraberrituta dago eta orain kanpoaldetik berritzeko unea iritsi zaio. Antzoki gaineko bizilagunek ere Udalaren ekimenarekin bat egin eta eraikina margotu dute.

# Inkesta

Interneten Nazioarteko Eguna izan zen atzo, maiatzak 17.

## Erabiltzen al duzu internet? Zertarako?

**RUBEN LUIS**  
Ikaslea  
12 urte



“Bai, etxean ez daukat baina ikastolan erabiltzen dut, informazioa bilatu eta jolasteko batez ere. Posta elektronikoa-ren funtzionamendua oraindik ez dugu ikasi.”

**ANDONI ORTEGA**  
Industria maisua  
38 urte



“Ez. Etxean ez daukat ordenagailurik eta lanerako ere ez dut behar. Zerbait behar dudanean, lagunen bati esaten diot begiratzeko. Egunen baten jarriko dut etxean.”

**M<sup>a</sup> JESUS AZPIAZU**  
Ileapaintzailea  
43 urte



“Bai. Gauza mordoia egiteko erabiltzen dut internet: informazioa bilatu, gauzak erosi... foroetan ere hartzen dut parte. Oso tresna interesgarria dela iruditzen zait.”

**JOSUNE SAEZ DE VITERI**  
Komertziala  
37 urte



“Ez. Orain jarriko digute lanean eta erraztasunak emango dizkigula uste dut. Eguneroko bizitzan ez dut beharrik sentitu, internet gabe bizitzea posible da oraindik.”

## [ BAI ala EZ? ]

### Kanpaina politikoak ba al dauka eraginik zure botuan?

**BAI %3**

“Bai. Udal Hauteskundeetan herriarentzako dituzten proiektuak hartzen ditut kontuan. Kanpaina politikoa jarraitzen dut, esan dutena bete ez dutela aurpegiratzeko bada ere.”

**EZ %97**

“Ez. kanpainari berari baino, aurkezten den taldeari edo pertsonari begiraten diot gehiago Udal Hauteskundeetan kasuan. Pertsonari emango diot botua.”

Datorren asterako... **Maiatzaren 27an izango dira Udal Hauteskundeak.**  
**Erabakita al daukazu zure botua?**

Bidali SMS bat:

**BARREN** (espazioa) **ERANTZUNA**

**7505** zenbakira

SMS kostua: 0'90 euro + B.E.Z.-a.

TalasoTerapia  
**Zelai**  
Z U M A I A

Hilabete honetan  
2 pertsonentzako zirkuito  
bat zozketatuko dugu  
**Zumaiko Zelai Talasoterapian.**  
Zenbat eta erantzun gehiago,  
aukera gehiago!

[www.talasozeelai.com](http://www.talasozeelai.com)

07

# Udal

Hauteskundeak

[ Bakea eta udaletxea ]



**JON PELI URIGUEN**  
EAko hautagaia

«Herritarren parte hartzearekin herria hobetzea nahi dugu»



**OVIDIO CAMPELLO**  
PSE-EEko hautagaia

«Udala, Jaurlaritza eta Aldundiaren arteko Etxebizitza Paktua proposatzen dugu»

## JON PELI URIGUEN

EAKo hautagaia

# «Udal Gobernua ahal den demokratiko eta zabalena izatea nahiko genuke»

*Ez da sekula politika munduan ibili Jon Peli Uriguen, hauxe izango da bere estreinako aldia. Herriaren alde lan egiteko modurik onena udaletxetik egitea dela esan digu, eta horregatik onartu zuen Eusko Alkartasunak egindako proposamena. Euskara, kirola eta hirigintza saila izango dira euren lehentasunak. Azken batean, herritarren beharrak entzun eta asetzen saiatuko dela adierazi digu.*

• **Zergatik onartu duzu EAKo zerrenda burua izatea?**

Duela urtebete ez neukan politikan sartzeko asmorik. Lazko urrian egin zidan EAK beraien alderdiko zerrendetan joateko proposamena, batez ere, Euskara Batzordearen ardura hartzeko. Zalantza handiak izan nituen, izan ere, ez bainuen nire burua politiko bezala ikusten, baina azkenean, proiektu interesgarria zegoela ikusi nuen eta proiektu horren barruan nire aportazioa egitea erabaki nuen. Azkenean, zerrendaburu izateko proposamena egin zidaten eta baiezkoa eman nuen. Erronka zaila izango da, baina ilusioz hartu dut. Gauzak beste modu batera egiteko ilusioz nator.

• **Zein garrantzia dauka zure bizitzan militantzia politikoak?**

Ni beti izan naiz abertzalea eta ezker-tiarra, baina sekula ez dut eduki militantzia politikorik, beste modu bateko militantzia izan da, gizarte militantzia esan daiteke, elkarte desberdinetan lanean aritu izan naiz, Elgoibarko Izarran eta Morkaikon, esate baterako. Udal politika herritarren zerbitzurako lan modura ulertzen dut, eta horregatik erabaki dut erronka honi ekitea.

• **Nolakoak izango dira, zure ustez, datozen lau urteak?**

Jarduera politikoa ez da erraza izango, egungo egoera ez delako aproposena, baina ilusioz hartuko ditut 4 urte hauek, gauzak hobera egingo duten esperantzaz. Deditazio handia eskatuko didate, eta alkatetza aterako bagenu, lanean eszedentzia eskatu beharko nuke. Bestela, zinegotzi izateko nire lanarekin ondo uztartuko dut.

### • **Zeri diozu beldur udaletxean sarzetezko orduan?**

Gehiengoa baldin badago, norberaren ideiak eta proiektuak aurrera eramatea zaila izango da, baina ez daukat beldurrik. Gauzak ahal dugun hoberen egiten saiatuko gara.

### • **Alkate izango bazina, zein izango litzateke zure lehenengo lana?**

Heria eta herritarren beharrak ezagutzen hasiko nintzateke, gero behar horiei erantzuna eman ahal izateko. Beharrak ezagutu gabe erabakiak ezin dira hartu.

### • **Zeintzuk izango dira zure alderdiaren lehenengo lanak?**

Lehenengo puntu bezala, gobernu batzordean alderdi guztiak ordezkatuta egotea izango da gure nahia. Bestalde, euskara mailan, orain arte dauden proiektuak bultzatzen jarraituko dugu, Elgoibarko Izararekin elkarlana bultzatu, Euskararen Biziberritzeko Plana sustatu eta batez ere, erabilerari emango diogu garrantzia. Ezagutza mailan euskara asko hobetu da azken urteotan, baina erabileran lan handia dago egiteko. Hirigintzaren banean, oso garrantzitsua da guretzat oinezkoentzako guneak sortzea. Aparkaleku arazoari ere, irtenbidea ematen saiatuko gara.

### • **Nolako gobernu osatu daiteke Elgoibarren?**

Maiatzaren 27ko botuen arabera ikusiko da nola gelditzen den indarren oreka. Guretzat, ahalik eta orekatuena izatea izango litzateke onena, ahal den demokratiko eta zabalena izatea nahiko genuke.

### • **EA eta EAJ banatuta aurkezteak eragirik izango al du?**

Izan dezake, batek daki! Batzuentzat alderdi berberak dira, beste batzuentzat EAJren anaia txikia da EA... Nire ustez, EAK bere proiektu politikoa dauka, EAJrengandik aldentuta, bi alderdi politiko desberdin dira. Dena dela, Gobernuan kolaboratzeko prest gaude. Hauteskunde ondoan ikusiko da banatzeak zer eragin daukan.

### • **Nola ikusten duzu herritarren partaidetza udaletxean?**

Lau urtean behin bozkatzea gutxi da, noski, baina badaude udaletxean parte hartzeko bideak. Batzordeetan parte hartzeko aukera herritar guztiek daukate, eta oso gutxi erabiltzen da. Erosotasunagatik edo ezjakintasunagatik ez da inor joaten. Era-

bakiak denon artean hartuta askoz hobeto ateratzen dira. Nire ustez, garrantzitsua da herritarren iritzia entzutea, bestela, norberaren esparruko beharrak ezagutzen ditugu, baina beste guztiaz ez gara jabetzen. Azken finean, herritarrek Udalaren beharra daukate, eta alderantziz.

### • **Etxebizitzaren gaia nola jorratuko duzue?**

EAtik Babes Ofizialeko etxeak bultzatuko ditugu. Jende askok ezin du merkatu librean etxebizitzarik erosi.

### • **Euskararen alorrean pasu berriak eman behar al dira?**

Elgoibar euskalduna da, baina erabileran hutsunea dago oraindik. Aurrerapausu handiak eman dira eta bide onetik goaz, baina oraindik badago lana. Gure lanik handiena erabilera bultzatzea eta etorkinak euskararen mundura barneratzea izango da. Bertakoek egiten ez badute, alperrik izango da kanpotarrei eskatzea.

**«Pilar ikastetxea izan daiteke zaharren egoitza berriraren kokalekua»**

### • **Zer egin daiteke etorkinak herriartze-ko?**

Argi dago gero eta gehiago direla, beraz, erraztasunak eman behar zaizkie herritarrezko, baina bertako jendeak dauzkan eskubide eta betebeharrak berdinekin.

### • **Alkate izango bazina, zer egingo zenuke merkadilloarekin?**

Gai hau kanpotik ezagutu dut, orduan ez nengoen udaletxean, baina bere egunean EAtik proposamen desberdinak egin ziren eta postura bera mantentzen dugu. Hitz egiteko prest gaude: saltzaileekin, herritarrekin, herriko merkatariekin... iritzi desberdinak daude eta denontzako onena dena egiten saiatuko gara. Ezin dut esan alkate ateratzen banaiz merkadilloa herri erdira ekariko dudarik, baina gaia mahai gainean jarri eta berriro aztertzeko prest gaude. Saltzaileek dioten moduan

salemantak %70ean jaitsi badira, gauzak ez daude ondo. Askok iruditzen zait, baina izan daiteke. Datu guztiak bildu eta eztabaidatzeko prest gaude EAtik.

### • **Utopikoa al da herriko kaleak autorik gabe ezagutzea?**

Zaila da, baina utopikoa ez. Jendearen ohiturak aldatu behar ditugu, izan ere, 500 metro egiteko ere, kotxea hartzen dugu. Aukera desberdinak aztertu behar dira, besteak beste, lurrazpiko aparkalekuak. Kotxeak traba handia dira herritarrentzat, badakigu, baina irtenbidea ez da erraza. Gure helburua oinezkoentzako guneak sortzea da, umeei lasai jolastu dezaten parkean eta jendea lasai ibil dadin.

### • **Zer eskainiko diezu etxeko nagusiei?**

Zaharren Egoitza txiki gelditu da eta gure herriak egoitza berri bat behar duela argi dago. Pilar Ikastetxea izan daiteke egoitza berriarentzako kokalekua. Hori guztia aztertzeko dago, baina gure ustez leku egokia da. Proposamen berriak aztertu behar dira, izan ere, gizartean 60 urtetik gorakoak 14 urtetik beherakoak baino gehiago direla entzun dut irratian.

### • **Nolakoa imajinatzen duzu Elgoibar 4 urte barru?**

Hobea izatea espero dut. Gaizki egindako gauzak zuzendu eta berriak ondo egin. Herritarren partehartzearekin, herria hobetzea espero dugu, herritarren beharretara egokitutako herria nahi dugu.

### • **Ezker Abertzalea ez aurkezteak nolako eragina izango du?**

Egoera zaila da. Gure nahia alderdi politiko guztiak ordezkatuta egotea da, bestela herritar kopuru bati hitza kentzen zaio. EArren ustez, alderdien legea gaizki eginda dago. Oraingoa ez da egoera normala. Botuek jarriko dute bakoitza bere lekuan, eta ezin da Euskal Herrian 100.000 boto inguru dauzkan alderdia ordezkaritzarik gabe laga. Lau urte egon gara horrela, eta bide beretik jarraituz, okerrera goaz.

#### **HAUTAGAIAREN KINIELA:**

**Gainontzeko hautagaiei bezalaxe, zinegotzien kiniela egiteko eskatu diogu Jon Peliri, baina ondorengoa erantzun digu: "Oso zaila da egoera honetan kiniela egitea. Gure helburua ahalik eta Udal orekatuena lortzea izango da".**

# [ Bakea eta udaletxea ]



Egoera politikoa nahasia dago. Gizartea beriz, bakea eta akordio politikoa eskatzen ari da.

Ezinbestekoa da Bakea Normalizazio politikotik bereiztea. Hau da euskal gatazka politikoaren konponbidea. EAJ-PNVk beti argi izan du ez direla elkarrekin nahastu behar eta ez dutela elkar baldintzatu behar. EAJ-PNV gogotsu azaltzen da elkarbizitzarako esparru berria bilatzearen ekimen politikoari eusteko prest. Konpondu beharreko gatazka politikoa, ETA sortu baino lehenagokoa dela ikusteko, gure alderdia da horren ispilu eta seinale.

Gehiengo osoz Eusko Legebiltzarrak onartu eta Espainiako Gorteek baztertutako Estatutu Politiko Berriak ipini du agirian berriro arazo politikoa. Hori da, hain zuzen, konpontzeke dagoen gatazkaren ispilurik garbiena.

Politikan eta herrigintzan aritzen garenek argi eta garbi utzi behar dugu edozein tresnak edo jokoerak ez duela balio eztabaida politikotik aritzeko eta gizartearen hautagai edo ordezkari izateko.

Optimistak gara egoera politikoari dagokionean. Gaur egungo gizartean, bai herri mailan bai nazioarte mailan, ez delako biolentzia onartzen eta aldi berean argi dagoelako hitzaren balioak urduri jartzen duela ezezko borobilaren bitartez eztabaidak edo debateak mugatu nahi dituzten guztiak.

Udalgintzaren bitartez bakea eta normalizazio prozesua herritarrei gerturatu behar zaie, elkartuene bidez eta eztabaida eragin gabe herritarren iritzia aztertuz eta bideratuz.



Bakegintza eta normalizazio politikoa banaezinak dira EArentzat. Elkarbizitza baketu eta normalizatu esanahi zabalean egin daiteke soilik. Ezin da bakea normalizazio gabe ulertu. EAK beti eskatu dio ETARI jarduera amatuari berehala uzteko eta desegiteko. Era berean EAK beti eskatu du negoziazio-bide politikoa irekitzeko, irtenbide adostuak eta eraginkorak bilatze aldera. Azken bi urteetan aldaketa garrantzitsuak egon dira panorama politikoan, adierazgarriena, Estatuko Gobernuarekin egindako elkarrietzeta eta negoziazioen ondoren, EAre su-eten iraunkorraren adierazpena izan zelarik. Adierazpen horrek ilusioa lortu zuen euskal gizartean, baina egoerak beriz ere okerrera egin zuen iazko abenduak 30eko Barajaseko atentatuaren ondoren.

EAK ezinbestekoa ikusten du, beraz, bakea lortzeko normalizazio politikoa lortzea. Euskal arazoan, jatorriz desberdinak izan arren, denboran bat datozen bi gai nahasten dira: eskubide historikoen aipamena, eta autodeterminazio-eskubidearen aldarrikapena. Eta, zer ulertzen dugu normalizazio politikoz? Gatazka dago, gizartearen gehiengoak asmo batzuk izanik, asmo horiek ez direlako legerian behar bezala jasotzen, nahi eta eskubide horiek ez direlako indarrean dagoen marko juridikoan behar bezala aurreikusten. Gure helburua normalizazio juridikoa da, hain zuzen ere euskaldunek libreki adierazitako eta hartutako borondatearen eta erabakiaren araberako egiturak eta erakundeak dituen normalizazioa.



Sozialistok bakea lortzearekin erabat konprometitu gaude.

Sozialistok beti egin dugu lan Elgoibarren bakean bizi ahal izateko.

Gure helburua herritarren arteko elkarbizitza demokratikoaren alde lanean segitzea da, zalantzarik gabeko errealitatea islatuz: pluralak eta desberdinak izan arren, eta modu diferentean pentsatzen dugun arren, elkarrekin bizi gara, eta arazoak denok batera konpondu behar ditugu.

Terrorismoaren biktimen oroitzapena, beren heriotzaren zentzu etiko eta politikoa, eta beren senideen mina eta sufrimendua uneoro gogoratu behar ditugu, eta horretarako lekuri aproposenak atentatuak gertatu diren herriak dira. Herri horietako bakoitzean ondorengoak egiteko konpromisoa hartzen dugu:

- Memoria guneak: Monolitoak, kaleak, plazak...

- Urteroko egutegian egun jakin bat jartzea hildako horiek gogoratu eta omenaldia egiteko.

Ekintza hauek une gogor baten baitan burutuko dira, iazko abenduaren 30ean ETAK Barajasen egin zuen atentatuaren ondoren bake prozesua bertan behera geratu zen-eta. Hala ere, egoera honek ez digu itxaropena kenduko, guztiz kontrakoa, bakearen eta akatasunaren alde, eta terrorismoarekin amaitzeko daukagun konpromisoa indartuko du.

Gogo onez hartzen dugu konpromiso hau. Badakigu irabazi egingo dugula; demokraziak, zuzenbide estatuak eta euskal biztanleriak ez du lagako beraien etorkizuna EAre menpe.





ANVrentzat bakeari buruz hitz egitea justizia eta askatasunari buruz hitz egitea da. Bakea gatazka baten konponbidea lortzen denean emango den egoera lez ulertu behar dugu. Euskal Herrian bakerik ez badago, aspaldidaniko zapalkuntza eta konpondu gabeko gatazka politikoa dagoelako da. Ez daukagu gure herria erakitzeke baldintzarik, eta herritar bezala dagozkigun eskubide oinarritzkoenak – bizitza politikoa parte hartzea, asoziazio eskubidea, adierazpen askatasuna – urratzen zaizkigu. Bakea aldarrikatzea egoerari konponbidea ematea da

Azken aldian, Ezker Abertzaleak pauso nabariak eman ditu gatazka konpondu eta geure herria bakea eta askatasunaren bidean jartzeko. Gure benetako helburuak –independentsia eta sozialismoa– hor dauden arren, sakonagoko adostasuna, lortu nahiaz egin ditugu azken ekarpenak denon helburu politikoak –independentsia ere bai– lortzea posible egingo duen markoa eskuratzeko.

Zehaztu ere egin dugu juridikoki nola egin daitekeen, erraz, eta “legalki”: Hego Euskal Herriko lau herrialdeetako Autonomia Nazionala.

Herriaren interesa jarri dugu mahai gainean, baina besteek ere hori egitea nahiko genukeen arren, PNV eta PSOE alderdikeriatan ari dira, eta errepresioaren bidetik egin dute, Ezker Abertzaleari eraso eginaz, eta gatazka politikoaren konponbide politikoaren beharra ezkutatuaz.

Denok dakigu bakea, denon arteko adostasunaz egin ahal izango dela, denok ahalmen berdinak izanik, denon eskubideak errespetatuz, ez zapalkuntzaz eta errezeta polizialekin.



Alderdi Popularraren iritziz, udalleteak askatasun gune bat bermatu behar die bizilagun guztiei. Guretzat, libre sentitzen ez diren bizilagunak egotea lehen mailako kezka da, eta bizilagun horiek ordezkatzaren dituen Udalarentzat ere izan beharko litzatekeela iruditzen zaigu.

Udal bat ez bada kezkatzen bere herriko bizilagunak libre sentitzeaz, bizilagun horiek alde batera lagatzen ari da. Alberdi Popularretik egunero-egunero lan egingo dugu bizilagun horiek libre sentitu daitezzen.

Nola da posible askatasunez ezin hitz egitea XXI. mendean? Nola da posible mehatxatuak bizi diren pertsonak egotea, beldurrez, askatasunik gabe eta beste batzuk 30 urte baino gehiago beste alde batera begira egotea?

Hau guztia ez da bidezkoa, eta PPtik egunero-egunero egingo dugu lan askatasun gune gehiago lortzeko.

Inork ez dezala hau guztia zailtzen jarri!

Askatasun gehiago lortzeko borrokatuko dugu, eta batez ere, ez ditugu gure artean ez dauden pertsonak eta terroristen mehatxupean bizi direnak ahaztuko.

Gai honetan ez dugu amore emango, ez dugu anbiguotasunik onartuko eta ez dugu beste alde batera begiratu.

Guztionez eta guztion alde, memoria, duintasuna, askatasuna eta justizia.



Jaio berriak bezala, herriak eta herritarrek konplexurik gabe, inbidiarik gabe eta bakean jaiotzen dira.

Munduaren historian zehar, pertsonen eta herritar desberdinen botere goseak edo desberdina denaren gainean agindu nahiak ekarri dute bakearen desagertzea.

Gure herri maite honetan ere bakearen falta sentitzen dugu eta bada garaia jaio berriaren hasierako sentimendu inozenteak berreskuratzea.

Guk garbi daukagu horretarako herritar guztiok, norberagandik hasita, konplexuak, besteenganako amorrak, gorrotoak eta kontrako sentimenduak kanpoan utzi behar ditugula.

Gero norberaren lan arloan, familiar eta lagunartean egin behar da lana eta inguruak ekimen honetaz kontagiatu. Behin hori lortuta, politika HIZKI HANDIZ egitera behartu behar ditugu politikoak, eta bakea berreskuratzea akordioetara iristea exijitu, DENON ARTEAN beharrezkoak diren akordioak lortuz.

Gizarte guztiaren lana da bakea lortzea, eta ez du balio gai honen inguruan espekulatzea. Beti aurrekoari kulpak botata ez dugu ezer lortuko, utz diezaiogun gure ziborrari begira egoteari eta ekin diezaiogun bideari.

Politikoez eta herritarrek zer uste dugu, bakea beste lorpen batzuen truke eskuratzen den kromoa dela?

Beste kuku batek joko liguke gure indarrak bakea lortzean jarriko bagenu eta gero beste arazo guztiak konpontzeari ekin.

## OVIDIO CAMPELLO

PSE-EEko hautagaia

# «Elgoibartarren botoekin gehiengo absoluturik gabeko Udala sortzea espero dut»

*Hirugarren aldiz aurkeztu du PSE-EE alderdiak Ovidio Campello Elgoibarko alkaterako hautagai moduan, ez da, beraz, berria politika munduan: PCE edo Espainiako Alderdi Komunistan hasi zen. Handik Euskadiko Ezkerrara pasa zen, eta azken hauek PSEra batu zirenean PSE-EEko kide izatera pasa zen. Azken lau urteetan Elgoibarko PSE-EEko Idazkari Nagusia izan da. Herriaren eta herritarren alde lan egitea da bere nahia.*

• **Nolatan onartu duzu PSE-EEko zerrenda burua izatea?**

Batefik, alderdiak postu hau nik betetzeko zeukan konfidantzagatik, baina batez ere, nire herriarentzat eta Elgoibarko herritarrentzat baliagarri izatea nahi nuelako.

• **Zein garrantzia dauka zure bizi-tzan militantzia politikoa?**

Ezkertiarrentzat orokorrean, eta niretzat pertsonalki ere bai, herritarren zerbitzura egoteko lan egiten bada da garrantzitsua politika, hau da, herritarrei egonkortasuna, segurtasuna, garapena, ongizatea eta bizi kalitatea eskaintzeko helburuarekin egiten den politika da inportantea.

• **Nolakoak izango dira datozen lau urteak?**

Elgoibartarren botoekin gehiengo absoluturik gabeko Udala sortuko dela espero eta aurreikusten dut. Denok partaide izango garen Udala, elgoibartarren iritzia kontuan hartuko duen Udala

eta inposaketa eta egia absoluturik onartuko ez duen Udala.

• **Alkate izendatzen bazaituzte, zein izango da zure lehenengo lana?**

Elgoibarren alde lanean hasiko nintzateke. Sektore sozial eta udaletxean ordezkatuta dauden alderdi politiko guztiekin hitz egingo nuke, sindikatuarekin, udaletxeko langileekin, enpresariekin, ikastetxeekin, jubilatuarekin, gazteekin... Elgoibartarrak entzungo nituzke. Zergatik? alkatea ez delako garrantzitsua. Guztion artean herria egin eta eraikitzea da garrantzitsua, denok gustura biziko garen herria eraikitzea, hain zuzen ere.

• **Zeintzuk dira zure alderdiaren lehentasunak?**

Gure ustez, alderdiaren lehentasunak ez dira garrantzitsuenak, herritarren eskaerak hartu behar dira kontuan. Beraz, gure alderdiak, herritarren gehiengoaren beharrek diren aldeko apustua egingo dugu. Besteak beste, ondorengo puntuak agertzen dira gure programan:

- Herriko auzoak berritzeko programak jarriko ditugu martxan, berauetarako prestazio sozialak gehitu, irisgarritasun arkitektonikoak hobetu eta segurtasuna bermatuko duten programak.

- Gure herriaren hazkunde neurtua eta orekatua bermatuko dugu, herriaren aldeko garapen jasangarria bultzatuko dugu.

- Industrieguneetara oinez joateko egiten ari diren bideak bukatu eta gainontzeko industrieguneetarako bideak egiteko proposamenak egingo ditugu.

- Sozialistok gure herriaren segurtasuna indartu nahi dugu, udaltzaingoari medio berri eta modernoagoak eskainiz, eta delituen kontra eta herritarren ongizatea eta askatasuna bermatzeko Ertzantzarekin koordinazioa bultzatuko dugu.

- Terrorismoaren biktimen aldeko memoria egunak sortuko ditugu, beraien izenean kaleak, plazak edota monolitoak jarri.

- Aita Agirreko eskolen eraikina berrituko dugu, Kultur Etxearekin batera, herriko kultur gune zabalago baten alde.

- Gazteek ere, asko daukate esateko eta beraien aldeko apustua egiten dugu. Alor honetan etxebizitza, lana, berdintasun politika, gizarte politika, etorkinen integrazioa... aipatu daitezke.

#### • Zein motako gobernu osatu daiteke Elgoibarko udaltxearen?

Dudarik gabe, herritarrek nahi duten Udal Gobernu osatuko da Elgoibarren. Gure ustez, alderdi politiko guztiak ordezkatuko dituen Udal Gobernu plurala izango litzateke egokiena. Ardurak denon artean hartuko liratekeen udaltxea. Gure papera elgoibartarrek nahi dutena izango da, baina edozein ardura hartzeko prest gaude. Espero dugun bezala, botoek herriko bigarren indarra izateko aukera eskaintzen badigute, atsedetik gabe lan egingo dugula ziurtatzen dut.

#### • 4 urtean behin bozkatuta, nola ikusten duzu herritarren partehartzea?

Gure ustetan, erabakien kalitatea herritarren partehartzeak eta herri horretako protagonista nagusien (herritarrek) erabaki antolatuetan bermatzen du. Herri demokrazia indartu eta partehartzeko beste bide batzuk jartzeko konpromisoa hartuko dugu: kontseilu ekonomiko eta sozialak, arreta sozialerako foroak sortu, emakumeen eskubide zehazketan sakondu eta partaidetzarako aurrekontuak gehituko ditugu.

#### • Etxebizitzaren alorrean, zein izango da zure politika?

Sozialisten ustez, udaltxeek hartu behar dute, Eusko Jaurlaritzarekin batera, etxebizitza duin eta eskuragarrien falta konpontzeko ardura. Gure ustez, herri ordenantza planak berri egin behar dira. Udaltxea, Eusko Jaurlaritza eta Foru Aldundiaren arteko etxebizitza paktu bat sortzea proposatzen dugu, herritar guztien etxebizitza eskubide unibertsala bermatzeko helburuarekin.

#### • Zer egin daiteke etorkinak herritartze-ko?

Gure herrira kanpoko herrialdeetako eta beste kulturetako jende asko etorri da azkenaldian. Sozialistok beraien herritartzearen alde lan egiteko konpromisoa hartzen dugu, beraien eskubide eta betebeharrak guztiek. "Etorkinentzako herri plana" proposatzen dugu, etorkinak herritartzeko bideak jarri nahi ditugu.

## «Plaza Txikian lurrazpiko aparkaleku baten beharra ikusten dugu»

#### • Zer eskainiko die zure alderdiak herriko nagusiei?

Hasteko, argi laga behar dut nagusi izateko iritea garaipen pertsonal eta soziala dela. Baita ere, maila pertsonalean eta sozialki garatzeko aukera bat da zahartzarora. Gure alderditik, proposamen desberdinak bultzatuko ditugu nagusien alorrean: hasteko, dependentsia daukaten nagusien arreta zerbitzuak hobetzen saiatuko gara, egoitzetarako itxaron zerrendak txikitze helburuarekin. Bestalde, Pertsona Nagusien Kontseilua bultzatuko dugu, nagusiek jaso duten jakinduria beraien artean konpartitu dezaten. Azkenik, laguntza eta konpainia zerbitzua bultzatuko dugu, bakarrik bizi diren nagusientzat, edota zaharren egoitzara joaterik ez dutenak ahalik eta denbora gutxien eman dezaten bakardadean.

#### • Merkadilloaren gaiari dagokionez, zein da zure iritzia?

Gure alderdiaren postura oso zehatza eta argia da gai honen gainean: merkadilloa herri erdira itzuli behar da.

#### • Trafiko eta aparkaleku arazoarentzako itenbiderik?

Gure ustez, trafiko eta kotxeen arazoa honela konpondu daiteke: epe ertainera, Foru Aldundiarekin elkarlanean bariante bat egin behar dela iruditzen zaigu, eta garrantzitsua da eragile sozial guztiek hitz egitea trafikoa hobeto antolatzeke. Bestalde, herri barruko garraio publiko bultzatu behar dela uste dugu. Herritarrek kontzientziatu behar dira, kotxea benetan beharrezkoa denean bakarrik erabili dezaten. Aparkaleku gehiago egin behar dira, bai erdigunean eta baita herriaren kanpoaldean ere, baina batez ere, Plaza Txikian lurrazpiko aparkaleku baten beharra ikusten dugu.

#### • Euskarari dagokionean, zein da zure politika?

Elgoibartarren arteko lotura eta komunikazio giltz bezala ulertzen dugu euskara gure alderdian. Modu honetan, euskalduntzearen aldeko politikan aurrera jarraitu behar dela iruditzen zaigu.

#### • Ezker Abertzalea hauteskundeetan ez egoteak zein eragin izango du?

Egoera honekin EAJ eta EA aterako direla irabazten uste dugu. Terrorismoa kondenatu eta gainontzeko indar politikoekin batera, Ezker Abertzalea ere hauteskundeetan egotea gustatuko litzaiduke.

#### • Nolako imajinatzen duzu Elgoibar 4 urte barru?

2011. urteko maiatzean elgoibartarrek gure herriaz harro egotea espero eta desio dut. Gure herrian, herritar guztien ideiak ordezkatuta egotea gustatuko litzaidake eta herritarrek udaltxea gertu sentitzea nahiko nuke, herritar guztien beharrek kezkatuta eta arduratuta dagoen udaltxea izatea gustatuko litzaidake.

#### HAUTAGAIAREN KINIELA:

EAJ 7  
PSE-EE 4  
EA 2  
PP 2  
EB-ARALAR 2



# Elgoibar egitea

etorkizuna eraikitzen  
beste modu batean

[www.euskalherriaegitea.org](http://www.euskalherriaegitea.org)



**eusko  
alkartasuna**  
euskal sozialdemokrazia



**MONDRAGON  
UNIBERTSITATEA**

ENPRESA  
ZIENTZIEN  
FAKULTATEA

**Erabaki al duzu non jarraitu zure ikasketak?  
Lan munduari zuzendutako unibertsitate batean ikasterik nahi?**

Hala bada, etorri eta ezagutu MONDRAGON UNIBERTSITATEA bertatik, ATE IREKIEN SAIOETAN

↘ Oñatiko Campusa Maiatzak 24 (osteguna) 18:00

- Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan Lizentziatura
- Zuzendari Idazkaritza

Lekua gorde telefonoz: Oñatiko Campusa 943 71 80 09

[www.eteo.mondragon.edu](http://www.eteo.mondragon.edu)



# Edergintza

Radiofrekuentzia: "Ebakuntzarik gabe emaitza onenak"



*Isopilura begiratzean denbora alperrik ez dela pasatu konturatzen gara askotan.  
Zimurrak ez zaizkigu gustatzen, eta horren kontrako erremedioren bat jartzen saiatzen gara.  
Aurpegiko azala gazte mantentzeko teknikarik aurreratuena aurkeztuko dizuegu gaurkoan.  
Radiofrekuentzia. Kirurgiarik gabe, emaitza bikainak lortuko dituzu.*

**L**aserra agertu zenetik, azala gaztetzeko ebakuntzarik gabeko tratamenduen artean, berrikuntza terapeutiko garrantzitsuen da radiofrekuentzia. ThermoBeauty izeneko aurpegi tratamendua, radiofrekuentzia termiko (bero uhinak) eta hotza aplikatzeko sistema berritzaile baten arteko konbinazioan oinarritzen da. Honi esker, gure azalean emaitza bizkor eta iraunkorak nabaritu ditugu.

Aurpegia gaztetzeko sistemen artean, zahartzearen kontrako emaitza eraginkorrenak eman dituen sistema da.

Teknika berritzailea da, ez du ebakuntzarik behar eta ez du minik ematen. Azalaren gainean eragiten du, dermis sakonean eta baita dermis azpiko geruzetan ere bai. Kolageno sakona suspertu eta birmoldatzeko prozesu batekin hasten da tratamendua. Honek fibroblastoak aktibatzen ditu eta azala indartzen du, zimurrak eta espresio keinuak gutxituz.

Radiofrekuentziak erabiltzen dituen uhin armonikoen bidez, zelula gehiago sortzen dira, argitasuna areagotzen da eta azala gaztetu egiten da.

Judith Edergintza Zentroan eskaintzen da radiofrekuentzia tratamendua. Honetan espezializatua dagoen estetizista bat etortzen da bertara, eta bakoitzari bere neurriara egokitutako tratamendua eskaintzen zaio. Bakoitzaren azalaren arabera, saio desberdinak beharko dira. Batek 10 saio beharko ditu, eta beste ba-



tek, 5 saiorekin nahikoa izan dezake. Saio bakoitzaren ondoren ikusten dira emaitzak, baina batez ere, 3 edo 4 hilabete pasa ondoren igartzen da aldaketa. Saio hauen ondoren, mantenu tratamenduak egin behar dira. 100 euro balio ditu saio bakoitzak.

Radiofrekuentzia aurpegirako beste tratamendu batzuekin konbinatu daiteke: zimurrak kentzeko tratamendua, esate baterako, oso egokia da. Judith-ek berak eskaintzen du hau. 6 saiotako bonoak eskaintzen ditu, saio bakoitza astean behin egiten da. Tratamendu hau motelagoa da, baina emaitza oso onak ematen ditu.

**Judith Zabala - Judith Edergintza**

## ANE ALBISU TRADIZIOZKO JANTZIETAN ADITUA

# «Buruko zapia eta txapela dira euskaldunon ezaugarri bereizgarriak»



*Ane Albisu, lanbidez euskara irakaslea eta "tradiziozko jantzieta" aditua den donostiar honek, "tradiziozko jantzien" gaineko hitzaldia eskainiko du datorren eguenean, hilak 24, Kultur Etxeko hitzaldi gelan eta arratsaldeko 19:00etan. Hona hemen, hitzaldian ikus eta entzun izango dugunaren aurrerapen txiki bat.*

### ► Noiztik diharduzu baseritar arroparen gaineko ikerketa lanean?

Duela 30 urtetik Argia dantza taldean hasi eta 1985. urtean Ikerfolk erakundea sortu ondoren, tradiziozko jantziak atontzeko moduan arreta jarri, ikerketak burutu izan ditugu. 90. hamarkadara arte, dantza taldeak ziren batik bat, aholku eske guregana jotzen zutenak. Gero oharitu ginen, ordea, Euskal Jaiak, Olentzero edo Santa Ageda bezalako ospakizunak bere baitan hartzen zituen esparruan, hutsune bat bazela. Oro har, jendeak informazio gutxi zuen eta ahoz aho igarotako herri jakintzaren edo ikusitakoa aintzat harturik, jantzen eta atontzen zizuten euren baseritar arropak okasio horietan. Bazen, euskaldun gisa, geure nortasuna jantzien bidez azalaraztea eskatzen zuten egoerarik ere, (norbaitek kanpora ordezkari bezala joan behar zuenean etab.) Hortik Atondu ekimenaren sorrera.

### ► Zer izan da Atondu ekimenetik burutu duzuen?

Gure lehendabiziko lana, XIX. mende amaieran baserritarrak, arrantzaleak eta herritarrak jantzen ziren eran oinarrituta, hainbat jantzi egitea izan zen. Nolabait,

etnografia mailan, lana egina bagenuen. Puntu honetan, bereizketa bat egin behar dut, guk sortu genituen jantzien eta tradiziozko jantziaren artean. Azken honek, bere jatorria XX. mendearen hasieran du. Gauri honetan, tradizioa zein modernotasuna elkarrekin bizi ziren. Testuinguru hartan euskal jaiak eta erromeriek indarra hartu zuten eta hiritarrek festa horietarako baserritarrez jantzeari ekin zioten.

**«Atontzeko modua garrantzitsuagoa da jantzia bera baino»**

### ► Jatorrizko baseritar arroparen ezaugarriak?

Emakumeen eguneroko jantzia hona-

ko elementuez osatua zegoen: gona luze bat, amantala, jaka bat, zapi edo manto bat eta buruko zapia. Oinetakoei dago-kionez, abarkak, abarketak edo zapatak. Gizonezkoek bestalde, kotoizko edo artilezko galtzak. Gainekaldean alkandora marratuak, koadrodunak eta jaietarako liozkoak. Gisa berean, txalekoa oso elementu preziatua zen. Brusak eta elastikoak ere, erabiltzen zituzten. Koloreei erreparatu, XIX. mendean ilunerako joera bazegoen ere, kolore argiak eramaten ziren: gorriak, gorrixkak eta urdina besteak beste.

### ► Baseritar jantziak aldaerarik ba al du lurralde batetik bestera?

Hemengo eta Europako baseritarren janzkera antzekoa zen. Euskaldunok beste-enganetik bereizten gintuzten ezaugarriak nagusienak, buruko zapia eta txapela lirakete. Hain zuzen ere, Atondutik azpimarratzen duguna jantzia bera baino, atontzeko modua garrantzitsuagoa dela da. Zentzu honetan, aitortu behar da, azken urteetan, gizonezkoen baseritar jantziak bere esentzian hobekiago iraun duela, emakumezkoenak baino.

## 9. AURRESKU ETA SOINU ZAHAR TXAPELKETA

### Ane Espilla eta Maria Ferreiro txapeldun Euskadiko "Neskatxena" txapelketan



Legazpin pasa den domekan jokaturiko Aurresku eta Soinu Zahar Txapelketako finalean, Ane Espilla eta Maria Ferreirok lehen postuak eskuratu zituzten. Horrez gain, beste sei elgoibartar dantzari, finaleko aurreneko sei postuen baitan sailkatu ziren. Guztira, final honetan 30 dantzari aritu ziren.

Hona hemen, sailkapena eta euren izen abizenak: 7-11 urte bitarteko A sailean, Ane Espilla (1. postua); Iraitz Gonzalez (4. postua); Nerea Perez (5. postua); eta Nora Bastida (6. postua). 11-15 urte bitarteko B sailean, beriz, Maria Ferreiro (1. postua); Amaia Asti-

garraga (2. postua); Arantxa Ferreiro (4. postua) eta Itziar Aldalur (6. postua).

Argi geratzen da, beraz, gure herriko dantzariak, Aurresku eta Soinu Zahar Txapelketako ligan zehar eta kanporaketetatn ondo bili badira, finalean lorturiko emaitzak, ezinhobeak izan direla. Hori dela eta Lurdes Odriozola, dantza irakasleak, gure herriko dantzariak txalotu nahi ditu, liga osoan eginiko lan eta ahaleginagatik dela eta. Mutilen txanda, beriz, bihar izango da Errenterian eta arratsaldeko 17:30ean Niessen edifizioan. Gure herriko ordezkariak Aitor Asenjo eta Imanol Iturrino izango dira.

### Oskorri & The Pub Ibiltariaren kontzertua datorren ostiralean Herriko Antzokian

Urtero legez, Oskorri taldea Herriko Antzokian izango da, The Pub Ibiltariaren 11. kontzertuarekin. Errepertorioa anitza izango da, denetarako abestiak izango baititugu entzungai. Honako saioa, Euskal Jaien mendeurrena gogoratzeko antolatutako ekitaldietako bat dugu eta Elgoibarko Udaleko Euskara Batzordeak dei egiten diete heritarrei ekitaldi honetan parte har dezaten. Kontzertu honetarako sarrerek, prezio berezia izango dute: 5 euro helduentzat, eta 16 ute bitarteko gaztetxoek, 3 euro ordaindu beharko dituzte. Sarrerek aldeztu aurretik eros daitezke, Elgoibarko Kultur Etxean: goizez, Euskara Sailean eta arratsaldean, Gazte Informazio Bulegoan.



## 06-07 ongarrizinekluba 30 filmak

El arcoEl auraUnfranco, 14 pesetasEl taxista fulVerano en BerlinDesayuno en Plutón La isla de hierro Algo parecido a la felicidadLa noche de los girasolesHonor de cavalleriaLas partículas elementales Camino a GuantánamoEl viento que agita la cebadaNomadas TXCruzando el puente. Los sonidos de EstambulCopying BeethovenEl perro mongolModiglianiTimeFicciónAgua con salEramos pocos Luces al atardecerTxoriak galduta egozianGrbavicaLa leyenda del tiempoTropical Malady Ullach: La revolta permanentAgianEl gran silencio.



Elgoibarko  
Udala



Foru  
Aldundia



Ongarri  
Zinekluba

## ESKUBALOIA

### Infantil neskek Espainiako txapelketa jokatzeko sailkatu dira



**S**anlo EKTko Olalsa infantil nesken taldekoak Gipuzkoako txapeldun berriak dira, Zarautz eskubaloi taldeari 17 eta 16 irabazi ondoren, Andoainen jokaturiko partida erabakigarrian.

Garaipen honi esker, Espainiako Txapelketako fasea jokatzeko sailkatu dira. Hain zuzen ere, Almeriako Vera herrian arituko diren taldeak hauetxek dira: Carboneras (Andaluziako txapelduna) - Olalsa (maiatzak 18, 19,30ean); Aceuchal (Extremadurako txapeldunak)

- Olalsa (maiatzak 19, 10:00etan); eta Olalsa - La Garriga (Kataluniako 2.ak), azken partida hau, maiatzaren 20an eta 10:00etan izango da.

Azken aldian, Lojantzi, Tecnifuelle eta Olalsa eskubaloi taldeek erdietsitako lorpenei, infantil nesken mailako Aterpe taldeak egiten diharduen denboraldi ona gehitu behar diogu. Bihar goizeko 9:00etan Umietaren aurkako partida jokatuko dute, Infantilen Aldundiko Txapelketako finala, hain zuzen ere.

#### Diabolo ikastaroa


Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak diabolo ikastaroa antolatu du, ekainaren 25etik uztailaren 18ra. Klaseak Olaizaga kiroldegian eskainiko dira, astelehen eta asteazkenetan, 10:00etatik 11:30era, eta 6 urtetik gorako haurrek parte har dezakete. Prezioa 27 eurokoa da eta ume bakoitzari diabolo bat emango zaio. Interesatuak kiroldegian izena eman dezakete.

#### Kiroldegiko oharra

Kiroldegia ireki zenetik bertako tabernaz arduratu direnak jubilatuta egiten dira. Erreleboa hartzea nahi duenak Olaizaga kiroldegiko tabernako kontzesioaren baldintza tekniko eta ekonomikoak maiatzaren 30era arte aurkeztu ditzake.

### Agustin Irusta San Migeldarra 2. sailkatu zen San Pedron jokaturiko bolo jardunaldian

Agustin Irusta San Migeldarra 2. postuan sailkatu zen pasa den zapatuan, San Pedroko bolatokian jokatu zen Gipuzkoako XXXVIII. Hiru txirlo Bolo Txapelketan. Aurreneko postua berriaz, Sergio Rodriges eibartarrak bereganatu zuen. Ligaxka honetako 7. jardunaldia izan zen honakoa eta guztira, 75 bolo jaurtitzaileri aritu ziren bolo jokoa. Hirugarren sailkatua, Eduardo Arrona San Migeldarra izan zen 5 txirlorekin. Laugarren eta bosgarren postuak, Manuel Zapirain eta Jose Monterroso bolo jokariatzat izan ziren, hurrenez hurren. Seigarren postua bestalde, Xabier Loiola San Migeldarrak eskuratu zuen 4 txirlorekin. Hurrengo bolo jardunaldia, bihar, hilak 19 izango da Sorluzeko Txurruka bolatokian arratsaldeko 17:00etatik aurrera.



### Elgoibartar pilotariek azkoitiarrak mendean hartu zituzten

Pasa de ostiralean jokatu zen Ikastolako frontoian, Gipuzkoako Herriarteko aurreneko partida eta guztien ezusteko, pilotari elgoibartarrek, Azkoitia, egungo txapelduna, 2 eta 1 hartu zuten mendean. Dena den, ostiral honetan erabakiko da nor pasako den final-laurdenetara Azkoitiko Gurea frontoian, 22:00etatik aurrera jokatu den norgehiagokan. Azkoitiarrak ez diete batere erraz jarriko, egungo txapeldunak izateaz gainera, Gipuz-

koako Herriarteko Txapelketan titulu gehien eskuratu dituen herria baita; 16 txapel irabazi dituzte guztira.

Bestetik, aipatu, Lagunak pilota Txapelketan jardungo duten pilotarien jokoa, hemendik aurrera Plaza Handian ikusteko aukera egongo dela. Txapelketa honetan, benajmin, alebin eta kadete mailako pilotariek jardungo dute, eguazten eta barixakuetan jokatuko dituzte neurketak, 18:00etatik, 20:00etara.





## MENDIA

# Elgoibarko mendi itzulia domeka honetan izango da



**A**urtengoan ere, mendizale direnek hitzordu galduezina dute Elgoibarko Mendi Itzuliarekin. Partehartzaileek urteroko mendi bira bera burutu beharko dute, guztira, 38 km. Irteera goizeko 6:00etan izango da Plaza Handitik. Bidean zehar indarberitzeko bi gune egongo dira eta horrez gain, partaide guztiak bazkari eder bat dastatzeko aukera izango dute Merkatu Plazaren gainean, behin ibilbidea bukatu ondoren. Iaz, 252 lagunek burutu zuten Elgoibarko mendi itzulia. Oraindik mendi bira hau egin nahi duzuenok, garaiz zabiltzate, egunean bertan izena eman baitaiteke.

## Kopako Finala jokatu du bihar Elgoibarko saskibaloitaldeak

Senior mutilen mailako saskibaloitaldeak Eibarko Datac taldearen aurka jokatu du bihar, zapatua, Kopa Txapelketako Finala. Bertan erabakiko da aur-

tengo txapeladuna nor izango den Neurketa Olaizaga kiroldegian izango arratsaldeko 19:00etan. Zaletuei deia egiten zaie animatzera joan daitezen.



## [ EMAITZAK ]

### FUTBOLA

Haundi 1 - Beasain 1  
Amaika bat 2 - Elgoibar 4 (erreg.)  
Beasain 1 - Elgoibar 0 (jub.)  
Ancitasuna 1 - Elgoibar 0 (O. inf.)  
Zumaia 2 - Elgoibar 0 (Kad.)  
Aloña Mendi 0 - Elgoibar 3 (neskak)

### ARETO FUTBOLA

Kenci 4 - Kanicas 2 (euskar liga)  
Relojes Mondaine 4 - Elgoibar 3 (jub. gipuzk.)

### ESKU PILOTA

#### Debarroko Txapelketa (final aurrekoak)

Elgeta 22 - Elgoibar 9 (nagus.)

#### Herri arteko txapelketa

Elgoibar 13 - Azkoitia 22 (kad.)

Elgoibar 22 - Azkoitia 19 (jub.)

Elgoibar 22 - Azkoitia 11 (nagus.)

#### Lagunak Txapelketa

Bollar 18 - Ruiz 11 (benj.)

Amizabalaga 18 - Zubiaurre 9 (kad.)

Salagi 18 - Agirrebeña 9 (kad.)

### ESKUBALOIA

Aterpe 17 - Umietta 8 (inf.)

Olasa (Gipuzkoako txapeladunak) 17 -

Zarauz 16 (inf. nesk.)

IMH 35 - Jauja 25 (kad. nesk.)

Lojantzi 29 - IES Construcciones 23 (sen. nesk.)

Cometel 23 - Aloña Mendi 33 (jub. nesk.)

Urola 23 - Tecnifuelle 38 (sen. mutil.)

## [ AGENDA ]

### FUTBOLA Mintxetan

Zapatua, 19

10:00 Zumaia - Bergara

12:00 Elgoibar - Behobia (kad.)

16:30 Elgoibar - Vasconia (jub.)

### ESKU PILOTA Azkoitiko Gurea Frontoian

Barixakua, 18

22:00 Azkoitia - Elgoibar

### ESKUBALOIA Kiroldegian

Zapatua, 19

12:30 Tecnomeca - Hondarribia

16:00 Tecnifuelle - Arasate

17:30 Pneumax - Egia

...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEAN amatasun baja-ordezkatza betetzeko PERTSONA BEHAR DA  
ITZULTZAILE ETA KULTURA DINAMIZATZAILE POSTUA BETETZEKO

#### ESKAINTZEN DA:

- 7 hilabeteko egun osoko lan kontratua  
(UZTAIETIK URTARRILERA)

Curriculumak jasotzeko **azken eguna: MAIATZAK 25**

...eta kitto! Euskara Elkarte. Urkizu 11, solairuartea. 20600 EIBAR

Informazio gehiago: 943.200918 / 943.206776 (Maidier/Kaldo)  
E-posta: elkarte@etokitto.com, komunikabideak@etokitto.com

#### ESKATZEN DA:

- Euskal filologia amaituta izatea  
edo azkenengo mailan egotea

- Harremanetarako dohainak

- Eibar edo inguruan bizitzea

- Informatika ezagutzak

\* ...eta kitto! bazkideek lehenetasuna izango dute

## [ ETXEBIZITZAK ]

### SALMENTA

▶ Etxea salgai Sigman. Bizitzera sartzeko. Bista onak. Balkoia, sukaldea, egongela, komuna, 3 logela. ☎ **676623114**

▶ Etxebizitza salgai Altzolan. 2 logela, egongela, sukaldea, komuna eta lursail txiki bat kanpoaldean. Bizitzeko moduan. Prezio interesgarria. ☎ **619812448/676136199**

▶ Duplex-a salgai Artetxen. 4 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Eguzkitsua. 195.000 euro. ☎ **696266982**

▶ Etxea salgai Urasandin. Bizitzera sartzeko. Duplex. 94m<sup>2</sup>. Egongela, sukaldea, 3 logela, komuna, bainugela, despentsa, berogailua, dena kanpora. 237.399 euro/39, 5 milioi pezeta. ☎ **943740865**

▶ Etxea salgai erdialdean. 3 logela, egongela, bainugela eta sukalde-jangela. 120m<sup>2</sup>. Gas naturala. 60m<sup>2</sup>ko ganbara. ☎ **943741769**

### ALOKAIRUA

▶ Etxea hartuko nuke alokairuan. Premiazkoa da. ☎ **627831529**

▶ 19 urteko mutil frantsesak familia euskaldun batean ostatu ordainduko luke. Ekainean. Logela eta gosari-afariak. ☎ **628087042 (Edume)**

▶ Logelak ditut alokatzeko.

☎ **943744329**

▶ Logela alokatzen dut.

☎ **943741881/635206436**

▶ Bi logelatako etxea hartuko nuke alokairuan. ☎ **699486458**

## [ GARAJE eta LOKALAK ]

▶ Garaje itxia alokatzen da Trenbide kalean.

☎ **943742009/660795301**

▶ Marradun garajea alokairuan herri erdi-erdian, Santa Ana 2an.

☎ **943743427**

## [ AUTOAK ]

▶ Peugeot 306 familiarra salgai. 1.900 turbo diesel. 98koa. 170.000km. Egoera onean, beti garajeen.

☎ **610074096/943033613**

## [ BESTELAKOAK ]

▶ 2. eskuko ume kotxe kapota, aulkiak eta sakuak salgai. (Bebé confort) ☎ **629132713**

▶ 2. eskuko bizikleta erosiko nuke. ☎ **653733217**

## OHARRA

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak lau astetan agertuko dira. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta 12 euro eta alokairua 8 euro. Autoak 8 euro. Eta bestelakoak 5 euro. Asteazken eguerdia baino lehen. Tel.: 943 74 37 04

## LANA

### ESKAERA

• Emakumea umeak edo nagusiak zaindu edo garbiketarako egiteko prest. Goizez bakarrik.

☎ **943740367/639520378**

• Emakumea umeak edo nagusiak zaindu edo garbiketarako egiteko prest.

☎ **666771701 (Edileuza)**

• Emakumea lanerako prest.

☎ **671742142**

• Neska gaztea haurrak edo nagusiak zaindu, kamarera, sukaldari laguntzaile...

☎ **626394831**

• Alzheimerra duen pertsona zaintzeko emakume euskalduna prest.

☎ **943742330/660511781**

• Neska umeak edo nagusiak zaintzeko prest.

☎ **626767586/943531903**

• Neska gaztea umeak edo nagusiak zaintzeko prest. Egun erdiz.

☎ **680623606 (Olivia)**

• Neska lanerako prest.

☎ **663569263/676853028**

• Neska ingelesa au-pair bezala umeak zaintzeko prest, irailetik abendura. Nire erreferentziak Elgoibarko familiak ditu. (Molly)

☎ **943741569/627941227**

• Emakumea umeak edo nagusiak zaindu, sukaldari laguntzaile... esperientziaduna.

☎ **638527915/943530132**

• Klase partikularak ematen ditut. LH, DBH, zikloak eta moduloak. Zientzia arloan.

☎ **653717972**

• Klase partikularak ematen ditut. LH eta DBH. ☎ **943531054**

• Emakumea umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketara lanetarako prest.

☎ **607780679 (Reina)**

• Emakumea garbiketara lanak egin eta nagusiak zaintzeko prest. Egunez. Esperientzia.

☎ **636120425**

• Emakumea nagusiak zaindu edo garbiketarako egiteko prest.

☎ **606169667**

• Mutila igeltsero lanetarako prest. ☎ **6620263424**

• Mutila lanerako prest.

☎ **638465098**

• Pertsona kamarero edo sukaldari laguntzaile lanetarako prest.

☎ **649368137**

• Emakumea umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketara lanetarako prest. ☎ **671476869**

• Neska umeak, nagusiak zaindu edo garbiketarako prest.

☎ **697431326**

• Emakumea umeak edo nagusiak zaintzeko prest.

☎ **628529252**

### ESKAINITZA

• Kamarero neska behar da tabernarako. Asteartetik ostiralera, 10:00etatik 16:00etara. Kontratuarekin. ☎ **943531771**

• Bitxiak, barruko erropak eta edergintzako produktuak saltzeko pertsonak behar dira. Ez da esperientziarik behar. Irabazi onak. ☎ **607824892**

• Administrazio laguntzaile behar da lanaldi erdirako Elgoibarren. ☎ **943748566**

• Tabernarako kamareroa behar da. Asteegunetan, eta asteburuak txandaka. ☎ **943742897**

• Kamareroa eta sukaldari laguntzaile behar dira.

☎ **943121262**

• Kamareroa eta sukaldari laguntzaile behar dira.

☎ **620810120**

• Kamareroa behar da asteburu-erretarako. ☎ **943531771**

### ABISUAK

• Hilaren 13an urte bateko umearen kazadora bakeroa galdu nuen Mintxeta eta Netto artean. ☎ **943531367**

• Setter ingeles arrazako txakur emea oparitzen dut. Txuri-beltza, 11 hilabete. Ez du ehizarako balio. ☎ **650223328**

• Urrezko eraztuna topatu dut. Judith jartzen du. Umearena dirudi. ☎ **639971977**

• Pasa den domekan txamarra bat aurkitu genuen Madalako parkean. Beltza, txanoduna. Udaltzaingora eraman dugu.

• Urrezko belarritakoak ahaztu nituen kirolegian, ilea lehortzeko tokian. ☎ **635739207**

• Hozkailua hartuko genuke lokalerako. ☎ **627104915**


## [ZORIONAK]



▶ Gautxoko kamarera berriak gaur 19. Zorionak zuri...



▶ Zorionak **Yuri** hilaren 14an 3 urte egin zenituelako. Familiakoen eta lagunen partez.



▶ Zorionak **Intza** hilaren 15ean 3 urte egin zenituelako. Etxeko en eta bereziki, anai Peruren partez.



▶ Zorionak **Unail** Ea bihar igandean bezain ondo pasatzen duzun! Etxeko guztien partez.



▶ Datorren 24an 6 urte egingo dituen gure **Gorkari** zorionak eta muxu handi bat.



▶ Zorionak **Laura** gaur 11 urte egin dituzulako. Familiakoen, bereziki, Olaia, Jon eta Ikerren partez.




▶ Kaixo **Jon eta Juani** zuen urtebetetze egunak izan direlako. Muxu handi bana aitaxoren partez.




▶ Zorionak **aïtona eta Irial** Ondo pasa zuen egunean. Familiako guztien partez.



▶ Zorionak **Ibai eta Helene!** Txokolatzeko muxu handi bat Ikastolako laguntxoeren partez.



▶ Kaixo **bikote** zuen urtebetetze egunean. Muxu handi bat Ibon eta aitaren partez.



▶ Zorionak **Miriam eta Javier** hilaren 13an eta 30ean urteak egin zenituztelako. Elena eta Nerearen partez.



▶ 007(777) guztirako lizentzia izan beharko asteburu honetan datorrena ikusita. Anastasioren azken hegaldia izango da, laister kaixolan egongo haiz eta! Koadrilakoak.



▶ Zorionak **Noemi, Adrian eta Judith** zuen urtebetetzean.



▶ Zorionak **Lorea Urain** maiatzaren 11n urte bat egin zenuelako. Etxeko en partez.



## TXAT-ELKARRIZKETAK ALKATETZARAKO HAUTAGAIEKIN

Sartu gurera eta galdetu!

[www.elgoiBARREN.net](http://www.elgoiBARREN.net)

Elgoibarko berri izateko beste modu bat.

# Zerbitzuak



## [ OKINDEGIA ]



20 igandea IBARRENA



## [ FARMAZIAK ]

- 18 Etxeberria (Santa Ana)  
19 Fernandez  
(\* Goizez Etxeberria Erosario)  
20 Fernandez  
21 Yudego  
22 Zabaleta  
23 Etxeberria (Erosario)  
24 Ibañez  
25 Bidasolo

GUARDIA 24 ORDUZ  
Etxeberria (Santa Ana)  
Fernandez  
(\* Goizez Etxeberria Erosario)

KANPOKO FARMAZIAK  
IBAÑEZ  
Rekalde, 1 Soraluze.  
Tel: 943 75 16 38

FERNANDEZ  
Herriko enparantza 4, Garagarza.  
Tel: 943 75 61 42

ZABALETA  
Kalebarren, 9 Soraluze.  
Tel: 943 75 13 84

\* Beti dago guardiako farmazia  
Eibar/Ermua zonaldean.

# Gorbea TABERNA

*Mila esker elgoibartar guztioi!*

Gure jatetxearen itxiera dela eta,  
hilak 19, larunbata  
**19:00etatik 21:00etara**  
**LUNCH**-a eskainiko dugu.

Santa Ana, 10

Tel: 943 74 05 80

# THE END



Bokatak • Plater konbinatuak • Terraza edarra

ORAIN, OILASKO ERREAK EGITEN DITUGU ENKARGUZ

Basarte kalea, (IMH ondoan) • Tel.: 943 74 04 04

## [ 18 BARIXAKUA ]

### 17:30 HAMAIKA KOLORETAN DANTZAN

Taldea: Zenbat Gara antzerki taldea  
Kiribilka programaren baitan  
Herriko Antzokian  
Antolatzailea: Elgoibarko Izarra K.E.

### 18:00 EZKER BATUAREN EKITALDI POLITIKOA

Mundu solidario baten alde.  
Plaza Handian

## [ 19 ZAPATUA ]

### 10:30 ELGOIBARKO LAGUN TALDEA TXIRRINDULARI SARIA

Irteera Plaza Handitik  
Antolatzailea: Lagun Taldea

### 12:00 SARDINA JANA

Nafarroa plazan (euria egiten badu, Sigmako aparkalekuan)  
Antolatzailea: danborradako batzordea

## [ 20 DOMEKIA ]

### 06:00 ELGOIBARKO MENDI ITZULIA

Irteera Plaza Handitik  
Antolatzailea: Morkaiko M. E.

## [ 24 EGUAZTENA ]

### 19:00 BASERRITAR ARROPAK: NOLA JANTZI ETA ATONDU

Kultur Etxeko hitzaldi gelan  
Hizlaria: Ane Albisu

## [ 25 BARIXAKUA ]

### 18:30 IKASTOLAKO HAUR HEZKUNTZAKO JAIALDIA

Ikastolako frontoian

### 19:00 PILAR IKASTETXEKO DBH-KO IKASLEEN AGURRA

Pilar Ikastetxean

### 22:00 BIDEO FORUM-A

Filmea: "A Good Woman"  
Kultur Etxeko Hitzaldi gelan  
Hizlaria: Eskame Larrinaga  
Antolatzailea: Haizea Emakume Taldea

### 22:15 "THE PUB IBILTARIA"

Oskorri Taldearekin  
Herriko Antzokian  
Euskal Jaien 100. urteurren ospakizunen baitan

## ZINE KARTELDEGIA

### ELGOIBAR HERRIKO ANTZOKIAN



#### «300»

18, barixakua: 22:15  
19, zapatua: 19:30-22:15  
20, domekia: 19:30-22:15  
21, astelehena: 21:30  
«La vida de los otros»  
26, zapatua: 19:30-22:15

### EIBAR, UNZAGA

«Las vacaciones de Mr. Bean»  
18, barixakua: 19:30-22:15  
19, zapatua: 17:00-19:30-22:15  
20, domekia: 17:00-19:30-22:15  
21, astelehena: 19:30-22:15  
22, martitzena: 19:30-22:15  
23, eguaztena: 19:30-22:15

BARRENeK ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketan erantzukizunik.

## «300»



Zuzendaria: Zack Snyder.

Antzezleak: Gerard Butler, Lena Headey.

Frank Miller eta Lynn Varleyren imaginazio bizitik sortutako "300" eleberri grafikoan oinarritzen da akziozko filma hau. Antzina gertatutako Termopilaseko gudua kontatzen digu pelikulak. Leonidas erregeak gidatutako 300 espartanoek Jerjes enperadorearen pertsiar armada erraldoiaren aurka hil arte borrokatu zuteneko hura, alegia. Soldaduek guduaren erakutsi zuten adore eta sakrifizioa Grezia sortu eta pertsiarrei aurre egiteko inspirazioa izan zen. Alegia, demokraziaren zimenduak jartzen lagundu zuten soldaduek.

# Atzera hegira



**1967**. urteko erretratu zahar hau **Jose Sanchez-ek** laga digu. Baltasar elkarteak antolatutako VI. pilota txapelketan ateratako argazkia da. Erretratu Plaza Handiko frontoian aterata dago. Binakako pilota txapelketako finala jokatu zuten argazkian ikusten ditugun pilotari hauek. Jose Sanchez eta J. Ruedak osatutako bikotea izan zen txapelduna, Alberto Gurrutxaga eta J. Luis bikoteari 22 eta 21 irabazi ondoren. Markagailuari begiratuta, norgehiagoka gogorra izan zela esan daiteke. Gogora dezagun zein diren argazkian ageri zaizkigun mutil gazteak:

Ezkerretik eskumara: **Alberto Gurrutxaga "Abeto"**, **J. Rueda**, **Jose Sanchez "Pepe"**, **J. Luis "Markina"**.



## ESKERTZA

2007ko maiatzaren 11n hil zen  
**Bizente Soraluze Olasoloren** sendiak,  
bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



# oskorri & the pub ibiltaria

Maiatzak 25, OSTIRALA  
22:15ean  
Heriko Antzokian



Sarrerak aurrez salduko dira  
Kultur Etxean  
Euskara Sailean goizez eta Gazte  
Informazio Bulegoan arratsaldean  
Helduek 5 € - Txikiek 3 € (16 urte arte)



Antolatzaileak:



ELGOIBAR UDALA



HERITZ EDT



## hitzaldia

Tradiziozko jantzi eta janzkerak.  
Non, noiz eta zer jantzi?  
"ATONDU"ren proposamenak

Hizlaria: **Ane Albisu** · Eguna: **Maiatzak 24, osteguna** · Tokia: **Kultur Etxeko hitzaldi gela** · Ordua: **19:00**



RENAULT  
oca*si*ón

## Autoberri Aukera



Clio 1.5 DCI Conf. Express.  
5a, 85 zp, 5j, aire girotuarekin

13.030€\*

Scénic II 1.5 DCI Conf. Express.  
5a, 85 zp, 5j, klimatizagailua  
eta pintura metaliztua

15.200€\*



compremioreNAULT Garrantzia OCB On



\*Transferentzia-gastuak baim. Eskaintza honek izozkinak agortu arte balio du. Kuster diren ibilgailuen bertsio behar bada ez dagoite eskaintzaokel.



## Eraman DVD bat

ibilgailu bat  
erosita\*

Eskaintza honek aukerako edozein ibilgailu erosi gero balio du. 07/06/30 baino lehen egindako eskariekin balio du. Erinbestekoa da inagarki hau erakustea.

### AUTOBERRI

Pol. Ind. Anoeta, s/n. - Telf. 943 65 28 43/45 - TOLOSA  
ARRASATE - AZPEITIA - BERGARA - ELGOIBAR - IRUN

# BOZKATU!

EAE  ANV



[www.eae-anv.org](http://www.eae-anv.org)



# UDAL BERRIA

